

Unai Ruiz, mendizalea:

“Herrian entzun ezin diren soinuak aditzen dira mendian”

4 urte zituela aitak lehenengoz eraman zuen Urkora baina 9 urte bete arte, ez zuen zaletasuna serio hartu. 29 urte ditu jada eta mendiarekin enamaturik dago. Bere zaletasunari sor dio iaz Galarleiz mendi maratoian hirugarrena izatea.

- **Zenbat aldiz igo duzu Urko mendia?**

1.180 aldiz. Aurten, atzo-ko goiza aintzat hartuta 214 eta iaz 227 aldiz joan nintzen mendira. Eguraldiak laguntzen badu, iazko marka hobetuko dut.

- **Nola ospatu zenuen 1.000. igoera?**

Otsailaren 27an goizean igo nuen Urko 1.000. aldiz. Eguzkia zegoen arren, gailurra elurturik zegoen. Ez dut sekula horrenbeste elurrik ikusi! Nire lagunak eskiak zeramatzanez, ordu eta erdian burutu genuen lana. Arratsaldean, beste lagun batekin joan nintzen mendira 1.001. igoera egiteko. Gero, pintxo eta zerbeza artean ospatu genuen, tabernan.

- **Zerk ezberdintzen du Urko gainontzeko mendi-tatik?**

Urkoren malda eta igoera portzentajea ikaragarria da! Bertara igotzea kostatu egiten da. Oiz mendiak malda handia du, baina denbora luzeagoan egiten denez, ez da horren gogorra.

- **Zenbat denbora behar duzu gailurra menderatzeko?**

Oinez baldin banoa, 50 minututan egiten dut, eta antxintxinketan igoz gero, 33 minutuko errekorra dut.

- **Txangoak <http://josean-lasendaagradecida.blogspot.com.es/> blogean publikatzen dituzu...**

Duela lau urte, aitak eta biok esku artean genuen proiektua da, baina hori aurrera eramaten jakin ez, eta bertan behera utzi genuen, iaz berriro animatu ginen arte. Aurten Bisaurin (Pirinioak) edo Moncayo-ko (Zaragoza eta Soria artean) esperimentziak kontatu ditugu, sarri bat eginez, way pointak, hau da, GPS-aren koodenada puntuak jarritz, eta argazkiekin lagunduz.

- **Zer du mendiak harengatik lepoa egiteko?**

Hobby bat baino gehiago da, nire bizitza, nire ihesbidea. Zenbat eta denbora gehiago dedikatu, geroz eta gehiago behar dut.

- **Zer sentitzen duzu mendia garaitzean?**

Urkora lagunekin noanez, eta askotan joaten naizenez, ondo pasatzea bilatzen dut. Baina lehen aldiz mendi bateko gailurrera heltze-



an, nire burua gogobetetzea eta bertako gutunontzia bilatzea dut helburu. Gainera, herrian entzun ezin diren soinuak aditzen dira mendian, eta hori oso lasaigarria da.

- **Mendizale izatea ondo baloratua al dago?**

Bai, hemen geroz eta gehiago baloratzen den kirola da. Espainiako federatu gehien daude Katalunia eta Madrilerekin batera.

- **Psikologikoki zein fisikoki prestaturik eta beharrezko segurtasun neurriekin joan behar da mendira. Herritarrak kontzientziaturik al daude?**

Denetarik dago. Egungo teknologia, internet, edo GPS-ari (Kokapen Sistema Globala) esker informaturik daude. Ardura gabe jokatu

dut nik ere noizbait mendizale askok bezala, eta gailurra hor dagoen arren, buelta ematen ikasi dut.

- **Idolorik bai?**

Noski! Inurrategi anaiak, Edurne Pasaban edo Kilian Jornet katalana.

- **Etorkizunean zer?**

Mendiari lotuta jarraitzea espero dut, toki berriak ezagutuz, eta erronka berriei aurre eginez. Hiru Handiak egitea gustatuko litzaidake, hori 100km-ko proba bat da EAeko mendirik garaienak igotzean datza: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri, alegia. Ekainean ospatzen den lehiaketa honetarako, udaberrian entrenatzen hasiko naiz, lurra lehor dagoenean eta tenperatura altuagoak daudenean.

Leire Elustondo

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu